

Irratiak eta internet bat eginda, hedabide erraldoien aurrean

Komunikazio-sare alternatiboak globalizazioaren garaian

Arantza Gutierrez Paz
EHUko irakaslea

Telebista-kateak, telefono-operadoreak, irradi-sareak, egunkari eta liburuen argitaletxeak batzen dira korporazio komunikatiboak osatuz. Herri aberats eta txikitara, guztietara heltzen dira erraldoi horien mezuak, denak batuz eta berdintasun-geruzaren azpian homologatuz. Ia ezinezkoa da horien eraginetik ihes egitea eta horietatik kanpo existitzea ere. Handiek agintzen eta mundua ordenatzen dute; era berean entzun beharreko musika edo mintzo behar den hizkuntza ezartzen dute. Hau da, kultura eta informazioa berdefinitzen dituzte haien interesen arabera. Globalizazioaren garaia da. Horren aurka gutxi egin daitekeela dirudien arren, badaude beste mundu bat igartzen dutenak, eta horien artean irradi alternatiboak ditugu. Banaka oso ahalmen gutxi duten arren, elkartasun-sareak sortu dituzte, besteak beste Internetek eskaintzen dituen aukerez baliatuta. Amarauna ez zuten funtzio horrekin sortu, baina, nahi gabe ere, atari irekia eskaintzen die munduan zehar sakabanaturik dauden egitasmo komunikatibo txiki horiei, beste mundu asko ere entzun arazi ditzaten.

Television nets, telephone operators, radio channels, newspapers and book publishers unifies themselves becoming in big communication corporations. Their messages reaches to all rich nor little countries, grouping all them under the homogenisation process. It is quite impossible to escape from them, or even to exist out of them. These big corporations lead the world and put their own order; in the same way, they say what kind of music listen to or which language to speak. They define both culture and information as they want. It is time for globalisation; but, even if it looks really difficult, some people do see other possibilities, as alternative radios are. They do not have much power individually, but with the opportunities Internet offers they have create common nets. Cobweb was not created to play that function, but, without demanding it, it offers an open door to all those little communication projects, so that some other little worlds can be listened.

Irrati askeen mugimendua 1970eko hamarkadan sortu eta garatu zen Europan. Nonahi herri-, auzo- eta elkarte-irratia eratu ziren, herri-ekimen anitzek bultzatuta. Maiztasun Modulatuaren asmakizunak ahalbidetu zuen, besteak beste, estazio txiki horiek hainbat estatutan hedatu izana. Izan ere, oso hedadura-eremu mugatua, potentzia eskasa, musikaz hornitutako programazioa eta ahotsik gabekoen bozgorailua izateko asmoa izan ziren irratia horien ezaugarri aipagarrienak, baita enpresa handien eta estatuen informazio-monopolioari aurre egitea ere. Halaber, adierazpen-askatasuna, hiritarren parte-hartze zuzena eta komunikabideen erabilpen demokratikoa izan dira irratia askeek aldarrikaturiko oinarriak, mugimenduaren hastapenetik gaur egunera artean.

Internet denaren lehenengo urratsak ematen hasiak ziren, dagoeneko, aipaturiko hamarkadan AEBetan, ARPANET¹ izeneko ordenagailu-sarea sortu eta garatu baitzen garai hartan. Komunikazio-tresna horren hasierako helburua leku ezberdinetan lan egiten ari ziren defentsa-alorreko ikertzaileen arteko elkarlana eta informazio-trukaketa erraztea zen, eta ez masa-komunikabide bihurtzea, geroago gertatu den moduan. Elite batzuen arteko komunikazioa ahalbidetzeko jaio zen arren, Internet oso komunikabide hedatua —demokratikoena batzuen iritziz— bilakatu da. Manuel Castells-en hitzetan, komunikazio horizontalaren eta askearen balioa da sarearen ezaugarrietariko bat (Castells: 70-1). Aipaturiko adituaren esanetan, edonork zuzen dezake informazio-bilaketa nahi duen moduan, eta nahi dituen edukiak aurkitu ezean, norberak igor dezake nahi duena, edo amaraun horren barruko sare berri bat sortu. Hau da, Interneten konektaturiko edonor bihur daiteke hartzaile eta igorle.

Beraz, Internet garatu eta berehala konturatu ziren herri-mugimenduak komunikazio-amaraunak oso tresna egokia eskaintzen ziela beren aldarrikapenak eza-gutarazteko; eta, ekimen horien artean, baziren irratia askeak eta horiek bultzatu zituzten taldeak. Beraz, hurrengo urratsa erraz egin zen: irratia askeak Interneten barruan sartu ziren, sareak eskaintzen zizkien oihartzuna eta bultzada erabiltzeko asmoz. Bi komunikabide horien arteko bateratze edo sinbiosia xx. mendearen amaieran gertatu zen, eta badirudi oraindik elkarlana oso oparoa izan daitekeela.

Elkarkidetzak horretan sakondu aurretik, Internetek eta irratia dituzten ezaugarri komunak aipatuko ditugu, horietan oinarritzen baitira bi komunikabideen arteko harremanak:

- Biak jaio ziren interes militarrei lotuta, eta ez komunikabide berria sortzeko asmoaren ondorioz. Hala ere, bai sarea bai irratia masa-hedabide bihurtu dira; eta, dudarik gabe, euskarri komunikatibo hedatuena dira gaur egun. Irratia oso finkatuta dago herri garatuetan zein garatu gabetan; Internet, berriz, oso azkar garatzen ari da nazioartean, erabiltzaile gehienak Ipar Amerikan, Japonian eta Mendebaldeko Europan kokatzen diren arren.
- Pertsonen arteko komunikazioa horizontala ahalbidetzen dute biek; Internet sortu eta hedatu artean, irratia izan zen hartzailearekiko harreman zuzena

1. Arpanet, 1962an AEBetako ARPAk (*Advanced Research Projects Agency*) sortutako ordenagailuen sarea izan zen. Sare horren erabilera defentsa militarrean eta unibertsitate-ikerketara zuzenduta zegoen, eta ez gaur ezagutzen dugun interes ekonomikoetara eta komunikatiboetara.

garatzen zuen komunikabide bakarra. Gaur, berriz, edonor izan daiteke igorlea eta hartzailea sarean.

- Ekoizpen-kostuak merkeak dira, beste komunikabideekin konparatuz gero. Horren ondorioz, herri-erakundeek irratia eta Internet aukeratzeko dituzte beren mezuen bozgorailu gisa.
- Gertatu eta berehala hel daitezke informazioak hartzaileengana; orain arte, irratia ezaugarri propioa zen hori; irailaren 11z geroztik frogatu denez, Internetek aurrea hartu dio arlo horretan.
- Hartzaileak bereiz daitezke, interesen edo edukien arabera. Espezializazioari esker lortu zuen irratia bizirik jarraitzea telebistaren garaian. Interneten, audientzien banaketa sakondu egiten da, eta, oso publiko berezientzako eduki zehatzak eskaintzeaz gain, birtualki batzen dira sarean sakabanaturik dauden eta interes bera dituzten talde txikiak.

Hala ere, asko dira hedabide biak bereizten dituzten ezaugarriak:

Interneten eta Irratiaren arteko ezberdintasunak:		
	IRRATIA	INTERNET
MEZUARI DAGOKIONEZ	Zuzeneko emanaldien oinarrituta, mezua desagertu egiten da igorri eta berehala; gordetzeko modu bakarra grabazioa da.	Informazioa berehala hedatu arren, sarean igorritako mezuak gordetzeaz gain, behin eta berriz kontsulta daitezke.
	Entzumenari zuzenduriko komunikabidea da. Soinuan oinarrituriko hizkuntza erabiltzen du.	Euskarri multimedia da. Testuak, irudiak, soinua, e.a. eskaintzen dira bertan.
	Entzuleak ez du koderik behar entzunezko mezuak ulertzeko, ez du aurreko jakintzarik behar esaten diotena ulertzeko (hizkuntza ezagutu besterik ez)	Erabiltzaileek gutxienezko ezaguera edo jakintza izan behar dute, informazioa eskuratu eta ulertzeko.
HEDADURA- EREMUA	Komunikabide hurbila: tokian tokiko entzuleriei zuzenduta (auro, herri, herrialde, nazio edo estatuko biztanleei, alegia).	Komunikabide globala: edonondik igorritako mezua jaso ahal da munduko edozein tokitatik.
	Nazioarteko itunen arabera, estatuak banatzen dute esparru elektromagnetikoa. Emititzeko, baimen administratiboa behar dute irratiek.	Informazio-jarioak ez du muga administratiborik; informazioa libreki hedatzen da nazioartean. Ez da aurreko baimenik behar mezuak igortzeko
IGORLEARI DAGOKIONEZ	Identifikaturik dago, batzuetan baimen administratiborik gabe emititu arren.	Batzuetan, informazioaren sortzailea nor den jakitea zaila da.
	Airea du bidea irradi-seinaleak; beraz, edonondik igorri ahal da.	Kable edo satelite bidezko konexioa beharrezkoa denez, gutxienezko azpiegitura eskatzen du seinalea igorri ahal izateko.
HARTZAILEARI DAGOKIONEZ	Harrera pasiboa izaten da askotan: irradi-mezua hondo moduan entzuten da, beste zerbait egiten den bitartean. Batzuetan ez dago aurreko aukeraketarik, eta "sintonizatuta dagoen" programazioa aditzen du entzuleak.	Hartzaileak bilatu behar du informazioa; aurretik aukeratu behar du zer nahi duen irakurri, entzun edota ikusi. Ondorioz, harrera aktiboa eskatzen du.

Esan bezala, Interneten sortzaileen eta bultzatzaileen helburua ez zen irratia euskarria eskaintzea, baina irratia garatzeko tresna izan litekeela sarea aurrekusi zuten irradi-arduradunek, batez ere bi arlotan:

- a. Ekoizpenean eta errealizazioan. Interneten zehar informazio-jarioa ia etengabea da, eta aukera asko eskaintzen die kazetariei eta irratsaioen errealizazioari. Idatzizko informazioa ez ezik, soinu-artxiboak (efektuak, adierazpenak, audio-dokumentu historikoak, elkarrizketak, e.a.) eta euskarri informatiboak (Cool Edit, Real Audio...) aurki ditzakete sarean egileek, eta aurretik zituzten aukerak handitzen ditu horrek.
- b. Emanaldian edo mezuen hedapenean. Uhinen bidezko irrati-hedapenaren muga fisikoen eta administratiboen gainetik, irrati-emanaldien tokikotasuna gainditzeko aukera eskaintzen die Internetek irratiei.

Elkarlana posible izan zedin, zenbait asmakizun teknologiko gertatu behar izan ziren. Alde batetik, audio-artxiboak digitalizatzeari gain, trinkotzeko sistemak ere asmatu ziren —mp3 da hedatuena, baina ez bakarra—, eta, ondorioz, disko gogorreko memoria gehiegi bete barik, beste artxibo bat balitz bezala gorde, graba edo truka daitezke soinuak artxiboak. Bestalde, ordenagailuak lotzen dituzten sareak —telefoniakoek bereziki— gero eta bide azkarragoa eskaintzen diete erabiltzaileei, eta beren arteko harremanak errazten dizkiete. Era berean, eta irrati-emanaldiei dagokionez, 1995ean, emititzeko aukera ematen zien *Real Audio* izeneko programa asmatu zuen *Progressive Networks* izeneko enpresak; horri esker, grabaturiko irratsaio eta artxiboez gain, zuzeneko emanaldiak ere eskaini ditzakete irratiek sarean.

Ekoizpen- eta errealizazio-bide berriak uztartzen

Aipatu bezala, Internetek aukera berriak eskaini die irratiei ekoizpen- eta errealizazio-arloetan. Hasieran, enpresa handiek edota kate publikoek soilik digitalizatu ahal izango zituztela estudioak aurreikusitako arren, teknologia digitala ia edonoren eskura dago gaur, eta asko dira sistema analogikoak ordezkatu dituzten irrati txikiak. Era berean, Internetetik konexioak ugaritu egin dira, eta, irratietan ez ezik, etxeetan ere badago sarean sartzeko aukera. Ordenagailua eta konexioa baino ez dira behar sarean dagoen informazioa jasotzeko. Informazio hori egokitzeko sistemak ere Interneten bertan eskaintzen dira; esaterako, irratiek behar dituzten soinua grabatzeko edo editatzeko sistemak eskura daitezke, eta, gainera, dohainik.

Ondorioz, asko dira amaraun birtualak irratiko langileei eskaintzen dizkien aukera berriak. Hasteko, munduan zehar argitaratzen diren hainbat egunkari, aldizkari, buletin eta abarrek heldutako aukera dute albistegietako kazetariak. Gaur, korrespontsalak bidaltzeko aurrekonturik izan ez arren, nazioarteko gertaerak gertatu diren tokitik jasotzeko aukera dute informazio-arduradunek, jazo eta berehala gainera. Halaber, nahi izanez gero, bide ofizialeetatik kanpo dauden notiziak eta protagonistak ezagutzeko aukera du informatzaileak; komunikabide erraldoietan sartzeko aukerarik ez duten taldeek eta erakundeek —herri-mugimenduek bereziki— bidea aurkitu baitute Interneten².

2. M. Castellssek dioenez, beren aldarrikapenak ezagutarazteko bide zuzena eta azkarra aurkitu dute Interneten mugimendu kulturalak eta sozialek, bereziki, globalizazioaren aurkakoei (Castells, 2001: 164-5).

Dena den, irratian soinuak behar dira; esaterako, adierazpenak norbaitek esaten ditu, eta bere ahotik entzuteak sinesgarriago egiten ditu, kazetariak azaltzeak baino. Sarean aurki ditzake soinu horiek kazetariak: gertaera baten inguruko lekukoek, protagonistek edo kaltetuek, diskurtso-egileek, informazio-sortzaileek..., hainbat ahotsek hitz egiten dute Interneten. Izan ere, mp3 edo antzeko soinu-sistemei esker, audio-artxiboak hedatzen dira amaraunean zehar, nahi duenak eskura izan ditzan: Marcos Subkomandantearen azalpenak, Irakeko hiritar baten aiderazpenak, Egunkariaren itxieraren aurkako salaketak..., eta horiek guztiak subjektuen ahotan.

Musika, zine edo entretenimenduzko irratsaioen ekoizleek ere soinu-aukeraketa zabala dute: musika —doakoa edo ordaindua—, filmeen audioak eta soinu-bandak, efektu bereziak eta irratsaio osoak eskaintzen zaizkie saretik. Horretaz gainera, emisoren arteko artxiboen trukaketa ahalbidetzen du Internetek, baita programazio bateratua egiteko aukera ere.

Era berean, edonor izan daiteke informazio-sortzaile; beraz, nahi izanez gero, hiritarrek berek eskainitako informazioak jaso ditzake zuzenean (lehen ere irratiek bazuten telefona, hiritarren informazioak eta proposamenak jasotzeko bidetzat). Halaber, eta bide horren aukerak jorratu nahi izanez gero, edonor izan daiteke programatzailea. Izan ere, komunikazio horizontala —maila berdinean hedatua, eta ez goitik behera igorria— ahalbidetzea izan da irrati askeen ezaugarrietariko bat; hau da, gune erabakigarrietatik hiritarrenaganako komunikazioaren orde, hirritarrendandik hirritarrendaganakoa aldarrikatzen zuten estazio alternatiboek. Orain —eta horretarako ez da oso ezagutza berezia izan behar— edonork dauka saio edo tarte bat egiteko aukera... (norberak idatzitako lan baten irakurketa, gustuko duen musikaren grabaketa, soinu-muntaketa bat...); programagileek erabaki beharko dute eduki horiek nola bideratu entzuleen parte-hartzea berma dadin.

Irrati alternatiboentzako zerbitzuak eskaintzen dituzten web-orri batzuk:

IMC³ Radio Network: <http://radio.indymedia.org>.

Beren hitzetan, honako hau da erakunde horren helburua: «The IMC Radio Network is a collaborate project, intended to help create and distribute radical radio programming».

Honako zerbitzu hauek aurki ditzakete irratiek orri horretan:

- Munduko zenbait irratiren emanaldi grabatuak
- Zenbait irratiren zuzeneko emanaldia (*streaming*) entzuteko aukera.
- Audio-artxiboak MP3 taxueran (normahik erabiltzeko).
- Norberaren irratsaio, emanaldi edo informazioa (audioa edo idatzia) eskaintzeko aukera.

Pulsar : <http://www.pulsar.org>

AMARC⁴ erakundeak bultzaturiko informazio-agentzia da. Idatzizko informazioaz gain, soinu-artxiboak ere eskura ditzakete bertan parte hartzen duten bostehun elkarte-irratik.

Moebius-Planeta Radio: <http://www.amarc.org>.

AMARCEk bultzatu duen egitasmoa da, eta horrela definitzen du bere burua: «Moebius es un programa de distribución, intercambio y capacitación para radios comunitarias».

Latinoamerikako irratiek hartzen dute parte bereziki, eta, bertan, norberaren programazioan erabil daitezkeen soinu-artxiboak aurki ditzakete: irrati-nobelak, sintoniak, musika, jingleak, e.a. Era berean, ekoizpenari eta errealezazioari buruzko formakuntza eskaintzen zaiei nahi duten irratiei.

Oneworld Radio: www.oneworld.net/radio edo <http://radio.oneworld.net>.

Egitasmoaren eragileen hitzetan esanda, hau da beren xedea: «offers services and networking for broadcasters and civil society organisations who are using radio for human rights, sustainable development and democracy. Here you will find radio programmes for exchange, news, training and funding resources, and a growing directory of community members who are using radio for change».

Orri horretan, programazioan erabili ditzaketen audio-artxiboak trukatzeko aukera dute irratiek, baita bertatik "jaistekoa" ere.

3. IMC: *Independent Media Center*.

4. AMARC: *Asociación Mundial de Radios Comunitarias*.

Ziur asko, abantaila gehiago aipa litezke hemen, asko baitira Internetek eskaintzen dituen aukera berriak —batzuk oraindik asmatzeke—, baina txanponak bi alde ditu, eta onurak ez ezik kalteak ere ekar ditzake Interneten erabiltzeak, eskaintzen den informazio-jario horretan itotzeko arriskua, besteak beste.

- Lehenik, oso zaila izaten da batzuetan informazio baten sortzailea nor den jakitea. Eta ez gara identifikaziorik gabeko mezuez edo informazioez ari, baizik eta, izen, erakunde edo eragile baten atzean dagoen ideologia edo presio-taldea ezagutzeko zailtasunaz. Era berean, eta horrekin lotuta, ez da erraza bereiztea heltzen diren mezuak propaganda edo publizitatea ala informazio soila diren.
- Edukien globalizazioak tokikotasuna itotzea da beste arrisku bat. Irrati alternatiboen ezaugarri bat izan da tokiko gizarteari edo komunitateari zerbitzua ematea, bertako herritarren kezak, arazoak, kekek eta ekintzak ezagutaraztea, alegia. Interneten bidez —tokikoa nazioarteratu ahal den neurrian— beste gizarte eta herrialde batzuetan gertatutakoaren berriak jartzen dira eskura, eta horiekin albistegiak betetzeko tentazioa izan dezake kazetariak, irrati handietako ereduak kopiatzeko ahaleginetan.
- Era berean, eta tokian-tokian sorturiko ekintzen oihartzuna ahalik eta zabalen izan dadin, nazioartean nagusi diren hizkuntzak —ingelesa, frantsesa eta gaztelania bereziki— erabiltzen dira informazio horiek amaraunean hedatzeko. Horren ondorioz, hizkuntza txikiak baztertzeko arriskua dago, paradoxa bada ere: norberaren existentzia ezagutaraztea bera ukatzen duen hizkuntza nagusia erabiltzen da.
- Horrez gainera, sarean soinu-baliabide ugari eskaintzen direnez, soinu-muntaketak berak, efektuen erabilerak, estal ditzake edukiak; ikuskizunak mezua zapal lezake, eta edukiak itxura hutsaletan galdu.

Hedadura-mugak apurtuz, sakabanatuak batuz

Ekoizpen- eta errealizazio-alorrean Internetek eskaintzen dituen aukerak asko dira, emanaldiak urrutirago eta jende gehiagorengana heltzeko bidea ere errazten die amaraunak irrati txikiei. Dagoeneko, azpimarratu den bezala, edonora heltzeko aukera eskaintzen die, muga geografiko-fisikoak eta administratibo-politikoak gaindituta. Esparru elektromagnetikoa mugatua denez, administrazioek kontzesioaren bitartez eskaintzen dute emititzeko aukera eta, gehienetan, kriterio politikoen arabera ezarritako baimenak behar dituzte irratiek uhinen bidez beren mezua hedatzeko. Era berean, uhin bidezko irrati digitalaren abiapuntuan gaudenez, teknologia berria ezarri gero, horretara heldu ezin izango diren emisora txiki guztiak betiko isiltzeko arriskua omen dago⁵.

5. *Digital Audio Broadcasting* (DAB) izeneko emanaldi digitalak ezartzen direnean, Maiztasun Modulatu eta Uhin Ertaineko emanaldiak bertan behera geldituko dira, hainbat estatuk erabakitakoaren arabera. Horri buruzko zehaztapen gehiago, *UZTARO*-n argitaratu nuen "Irratia erronka digitalaren aurrean" artikuluan aurki ditzake irakurleak, (*Uztaro*, **32**, 35-47).

Beraz, Internetek irratik txiki horiei dial alternatiboa eskaintzen diela esan genezake, baina ez hori bakarrik, oihartzun ia mugagabea ahalbidetzen duen diala ere bai. Esan bezala, Internet bidezko emanaldiek muga fisikoak, eta politikoak gainditzen dituzte; horri esker, *Erasmus*-eko ikasleek edo diasporako euskaldunek entzun dezakete euskarazko programazioa, Euskal Herritik milaka kilometrora. Hau da, munduan sakabanaturik dauden euskaldunak batu egin daitezke euskal entzuleria potentzial horretan —dena den, sarean konektaturiko entzuleria behar du izan—.

Irratigintza alternatiboak baino lehen, komertzialak aurreikusi zuen sakabanaturik zeuden entzuleak batzeko aukera. Latinoamerikako, AEBetako eta Espainiar estatuko hainbat irratitelebista batu ziren *Morfeo* izeneko egitasmoan, 1999an. Musika latinoan espezializaturiko programazioa eskaintzea zen horren helburua: zuzeneko emanaldi bateratua —elkarlanean ekoizitakoa— eskainiz eta parte hartzen zuten berrehun irratiekiko lotura erraztuz. Publizitatea zuen finantzabide nagusia, iragarleei oso entzule-kopuru handia eskaini ziezaikeelakoan, estatu-emisoreek banaka hartzen zutena baino eremu zabalagoa hartzen baitzuen Internet bidezko emanaldiak. Egitasmoak, berriz, porrot egin zuen, eta ez zuen bultzatzaileek aurreikusitako arrakasta lortu —entzule- eta iragarle-kopurutan—, eta, ondorioz, bertan behera geratu ziren emanaldiak 2002ko apirilean⁶. Dena den, bidea eginda zegoen, eta egon badaude sarean gutxiengoek osatutako entzuleria handiei —tokian-tokian sakabanatuta dauden entzule potentzialek osatzen dutenak— eskaintzen zaizkien programazioak, edo, bestela esanda, munduan interes edo gustu berdinak dituzten pertsonak eta taldeak batzen dituztenak, bata bestearengandik milaka kilometrora bizi arren.

Era berean, tokikotasuna gainditu eta beren mezua mundu osora helaraz dezaketela dakite irratik alternatiboek⁷. Kontuan hartu behar da irratigintza alternatiboa herri-mugimendua dela, hainbat giza talde eta eragilek bultzatutakoa. Historikoki, herri-mugimenduei lotuta egon dira beti elkarte-irratik edo emisora aske eta asoziatiboak; feministek, homosexualek, antimilitaristek eta kultura txikiak ordezkariek izan dute irratia komunikabide nagusizat, bakartzat kasu askotan. Hedabide handietan baztertuta, irratia erabili ohi dute bozgorailu moduan. Gaur, Interneti esker, bozgorailu horrek inoiz baino indar gehiago du, sekula baino urrutiago heltzeko gaitasuna eta premia. Izan ere, herri-mugimendu horien etsaiak —ahalmen ekonomikoa, finantzarioa eta politikoa dituen botereak— gero eta beso luzeagoak ditu, edonora heltzeko gaitasun ia mugagabea. Hedabide erraldoiak gero eta erraldoi-agoak dira, nazioak eta estatuak gainditzen dituzten korporazioak dira, txikiak irentsiz doazenak, bat egin arte, eta, ondorioz, irudi bakarra eskaini arte: zerbitzatzen duten agintearena, alegia. Beraz, txikiak ere globalizazioaren bidea aukeratu dute handiei aurre egiteko, beste mundu bat egin daitekeela —globalizazioaren aurkako lema— esateko; eta horretan ari dira irratik ere.

6. Oraindik horren berri aurki daiteke honako helbide honetan: www.morfeo.com.

7. M. Castellsen esanetan: «(...) Los movimientos culturales (...) se construyen en torno a los sistemas de comunicación, esencialmente Internet y los medios de comunicación. Porque esta es la vía principal que estos medios encuentran para llegar a aquellas personas que pudieran compartir sus valores y desde ellos influir en la conciencia de la sociedad en su conjunto» (Castells: 2001, 162).

Lehenengo urratsa, tokikotasuna ganditzea eta norberaren mezua edonora heltzea bazen ere, horri beste urrats batek jarraitu dio, irratien arteko elkarlanak, alegia. Ikusi dugunez, informazioa elkarri trukatzeko erabili ohi dute sarea irradi horiek; baina, batzuen iritziz, ez da nahikoa izan, eta beste urrats bat egiten hasi dira: emanaldi bateratuak eskaintzen, hau da, irradi alternatibo batzuk batu eta sare bidezko zuzeneko programazioa eskaintzen. Horixe da, hain zuzen, *Indymedia*-ren egitasmoa Europan: Mendebaldeko Europan ari diren irradi alternatiboaren artean programazio-parrila osatzea. Grabaturiko artxiiboak eskaintzeaz gain, emisora bakoitzak hartu beharko luke ordutegi-tarte baten ardura zuzenean emititzeko; hizkuntzari dagokionez, tarte batzuk hizkuntza txikietan eskainiko lirarteke eta beste batzuk, berriz, gehiengoak ezagutzen duen ingelesez.

Baina bidea ez da erraza, eta asko dira aurka dauden faktoreak:

- Esan bezala, Interneten emititzeko teknologia gero eta eskurago dute irratiek, baina oraindik asko dira digitalizazio-prozesua egin ez duten estazioak. Publizitaterik eta diru-laguntzarik gabe, oso diru-sarrera urriak izaten dituzte, eta, askotan, egoitza, ura eta argia ordaintzeko doi-doi heltzen zaie.
- Informazio-trukean gertatzen zen moduan, hizkuntza txikien presentzia bermatzeko bideak jarri arren, praktikan, handiak nagusitzeko arriskua dago, erabilgarritasunaren izenean (entzuleria handiagoetara heltzeko asmoz).
- Irratigintza alternatiboa borondatezko lanean eta konpromisoan oinarrituta dago, eta biak oso balio positiboak diren arren, batzuetan arazoak dakartzate: nekea, etsipena, arduragabezia... Nahia bai, baina lana ere beharrezkoa da emisora moduko egitasmo batek aurrera egin dezan, 1990eko hamarkadan, irradi askeen mugimenduak izandako krisialdiak irakatsi zuen legez. Horregatik, eta iraganeko akatsak ez errepikatzearen, irradi batzuetan soldatapeko langileek bermatzen dute proiektuaren jarraitutasuna, nahiz eta horiek jasotzen duten dirusari eskasak militantzia ere eskatzen duen.
- Entzuleen konpromisoa behar da: entzuleak aukeratu baino gehiago, hautatu egin behar du entzun nahi duen irradi-programazioa. Uhin bidezko dialari dagokionez, entzuleak askotan ohituraz aukeratzen du entzun nahi duen irratia —sintonizatuta dagoena gehienetan—; Interneten, berriz, espresuki bilatu behar du. Badaude lan hori errazteko osatu diren direktorioak, baina horietan ez ohi dira irradi txikiak edo alternatiboak agertzen, komertzialak baizik.

Irratia, Interneten osagarri Hirugarren Munduan

Orain arte, irratia eta Interneten arteko elkarkidetzak azaldu dugu, Marconiren asmakizunak amaraunean aurkitu dituen bide berrietan oinarrituta; baina, artikulu hau amaitzeko, alderantzizko elkarlana aipatu nahiko nuke: Interneten zabaldu den informazioa leku guztietara hel dadin irratia duen erantzukizuna. Horretarako, Hirugarren Munduan, eta bereziki Afrikan, nekazaritza-irratiek⁸ bete-

8. Irrati askeak edo elkarteak, Europan; emisora komunitarioak, Amerika Latinoan eta nekazaritza-irratia, Afrikan. Tokian tokiko berezitasun batzuk dituzten arren, oso egitasmo komunikatibo antzekoak dira irradi-mota horiek guztiak: beste hedabideetan lekurik ez duten giza taldeei zuzendutakoak, zerbitzu gisa sortzen dira komunitatean bertan; oso potentzia txikia dute eta, beraz, hedadura-eremua ere murrizta izaten dute. Afrikan, nekazaritzari lotuta sortu dira, nekazarien hezkuntza gabezia batzuei erantzuteko asmoz.

tzen duten zeregina goraipatu behar da, oso tresna garrantzitsuak baitira herrialde horien garapenerako.

Internet bidezko globalizazioaz hitz egiten denean, horrek ekarri dituen onurak azpimarratzen dira, eta informazioa edonora heltzeko aukera da horien artean aipagarriena dudarik gabe. Horri esker, jakintza asko behar duenaren esku dago; adibidez, munduko edonon izan dezake mediku batek gaitz bat osatzeko botika baten edo ebakuntza baten berri, eta teknologiarik, azpiegitararik eta bitartekorik ezeean ez luke informazio hori eskuratzeko aukerarik izango.

Medikuntzan ez ezik, beste alorretan ere oso garrantzitsu bihurtu da Internet garapenerako tresna moduan. Hala ere, egoera ez da dirudien bezain baikorra, teknologia berriak eskuratzeko arazoak baitituzte herri txiroenak. Hain zuzen ere, “hobi teknologiko” izendatu dute adituek garatutako herrien eta garatzearen arteko alde teknologikoa. Izan ere, munduan bizi garen 6.200 milioi pertsonen %7k —500 milioi baino gutxiagok— soilik du Internetekiko konexioa, eta horietako gehienak Ipar Amerikan eta Mendebaldeko Europan, Australian eta Japonian⁹ kokatzen dira; Afrikan, berriz, biztanleen %1ek¹⁰ bakarrik du aukera hori; eta, gainera, Internetekiko konexio gehienak Hego Afrikan¹¹ kokatzen direla kontuan hartzen badugu, sarearen erabilpena ia anekdotikoa dela esan genezake. Herri horietako egoera politikoek eta ekonomikoek eta azpiegitura-gabeziek areagotu egiten dute arazoa, eta ez dirudi konpontzeko asmo handirik dagoenik, nazioartean globalizazioaren aurkako mugimenduak agerian utzi eta salatu duenaren arabera.

Egoera horretan, irratia garapenerako tresna bihurtu da hainbat herrialdetan. Elkarte txikien beharretara egokitzeko aukera frogatu du behin baino gehiagotan irratia, edonoren eskura dagoen komunikabidea baita: merkea ekoizteko eta hartzeko, hizkuntza naturalean mintzo da —beraz, ez du eskatzen jakintza berezirik ulertzeko— eta edozein egoeratarako egokitzeko gai da. Horregatik erabili izan dute irratia hainbat erakundek informazio-iturri gisa, baita elkartearen beharrak, kultura eta ohiturak ezagutarazteko tresna moduan ere¹².

9. AEBetako biztanleen % 60k zuen Internetekiko konexioa 2002ko udaberrian; Kanadan, %58k; Japonian, %48k; Holandan, %61ek eta Suedian, %68k, *Nielsen*-en datuen arabera. Datu horiek eta gehiago aurki daitezke honako web-orrialde honetan:

www.ani.es/esradi/internacional/internacional.htm*Uso_internet_mundo.

10. ITU (*International Telecommunication Union*) izeneko erakundearen datuen arabera; 2001eko abenduan, Hego Afrikan kokatzen ziren internauta gehienak, eta bertako biztanleriaren % 7,05ek zuen Internetekiko konexioa. Aljerian edo Angolan, berriz, biztanleriaren % 0,57k soilik zuen amaraunera heltzeko ahalmena. % 0,09k Burundin eta % 0,28k Kamerunen. Horiek eta datu gehiago aurki daitezke erakundearen web-orrian: www.itu.int/ITU-d/iet/statistics/index.html. Era berean, munduan dauden internet-erabiltzaileen datuak aurki daitezke honako helbide honetan: www.nua.net/surveys/index.cgi.

11. Robinson Claude-ren esanetan, internauta afrikar gehienak Hego Afrikako hirietan bizi dira. Robinson, Claude (2001): “Inter Press Service (IPS) – Créer de nouveaux partenariats dans le domaine du savoir pour soutenir le développement rural à l’âge de l’information”, in *Atelier International sur la radio rurale*, www.fao.org.

12. Bruce Girard-en esanetan, honako hau da irratia funtzioa Afrikako nekazaritza-gizartean: «(...) además de ser el único medio de comunicación accesible, cumple con el rol de “teléfono de la comunidad” (...) En muchas áreas rurales la radio es la única fuente de información sobre precios del mercado para productos agropecuarios y es la única defensa contra los especuladores. La Radio se utiliza en programas de extensión agraria, siendo vehículo de educación tanto formal como informal, y juega un importante papel en la preservación de la lengua y cultura locales»(Girard, 1999a).

Baina, irriatiak berak garapenean betetzen duen eginkizuna garrantzitsua izanda, Internetek eskaintzen dituen aukerak gehitzen bazaizkio horri, oso tresna erabilgarri bihurtzen da elkartearen eskuetan. Jean-Pierre Ilboudo FAO erakundearen Hedapen, Hezkuntza eta Komunikazio Zerbitzuaren adituak diotenaren arabera, irriatiak Interneten funtzioa du Afrikako gizarte nekazarietan¹³. Hori gerta dadin, konexio bakarra behar du bertako komunitateak; horri esker, nekazaritza-irratietako langileak amaraunean zehar zabaltzen den informazio guztira hel daitezke, eta, behar dutena eskuratuz gero, elkarte osoari horren berri emateko bitartekoa da irratia. HIESa eta beste gaixotasunen prebentzioan eta nekazaritzaren alorrean —haziaren salneurriak, ekoizpenak hobetzeko aholkuak, nazioarteko eskaerak...—, besteak beste, asko dira herritarrengana bide horretatik heltzen diren informazioak, premia handikoak batzuk. Era berean, irratietara heltzen diren informazioek, kexek, beharrek eta abarrek badute munduratzeko bide bat Interneten, eta horren bidez, hedabide erraldoietan bazterturik dauden errealitateak ezagutaraz daitezke.

Esan bezala, konexio bakarra besterik ez dute behar informazioa eskura izateko, baina bitxia dirudien arren, hori ere ezinezkoa da Afrikako hainbat herrialdetan. Tanzanian, Martin Sanaingo'o Kariongi Ole Sanago izeneko kazetariak, adibidez, ehun kilometrora joan behar du Interneten konektatzeko, eta ondoren itzuli egiten da Olkonerei FM izeneko irratiara, eskuratu duen informazioa entzuleengana helarazteko¹⁴. Horregatik, Afrikako tokiko irriatiak —eta telebistak— eta Internet batzen dituzten gune multimediak sortzea da UNESCOren egitasmoa Hirugarren Munduaren garapenerako plangintzen barruan. Informazioaren hedapena demokratizatzea da horien helburua, irakurtzen ez dakiten biztanleei ere hel dakien, eta, gainera, haiek ulertzen duten hizkuntzara eta beren beharretara egokituta. Horretarako, telefono- edota elektrizitate-azpiegiturarik ez duten lekuetan, satellite bidezko konexioak ahalbidetzen dituzten estazioak sortu ditu nazioarteko erakundeak.

Dena den, eta Stella Hughes-ek, UNESCOren programako espezialistak, dioenez, errazago dabil informazioa iparraldetik hegoaldera, eta oraindik bide luzea egiteke dago, alderantzizko bidaia egin dezan¹⁵. Oso gutxitan agertzen da herrialde horien informazioa hedabideetan —gerraz edo gatazkaz hitz egiteko ez bada—, eta ezezagunak dira bertako ohiturak, kulturak eta hizkuntzak, “garapenak” dena homologatzen duen gizarte globalizatu honetan. Ikusi dugunez, Internet eta horren bidez osaturiko irratia-sare alternatiboak izan daitezke horien berri emateko gunerik aproposena. Izan ere —eta dagoeneko esan den bezala— ez da oso teknologia garestia behar emanaldia edonora igortzeko Internet bidez: soinu-txartela duen ordenagailua, soinua editatzeko programa informatikoa eta Internetetikiko konexioa. Hala ere, oraindik oso gutxiren esku dago teknologia hori Hirugarren Munduan; eta horretan ari dira lanean nazioarteko erakunde batzuk: FAO, UNESCO

13. “La radio rural: la Internet de África”, in www.fao.org/Noticias/2001/0111205-s.htm.

14. Horren berri aurki dezakegu, nekazaritza-irratiei buruz FAOk eskaintzen dituen albiste orrialdean: www.fao.org/News/2001/011205-e.htm.

15 Hughes, S. (2001): “L’UNESCO et les centres communautaires multimédia – Intégrer les technologies modernes et traditionnelles de l’information et de la communication, pour renforcer la communauté”, Atelier international sur la radio rurale: www.fao.org.11. Robinson Claude-ren esanetan, internauta afrikar gehienak Hego Afrikako hirietan bizi dira. Robinson, Claude (2001): “Inter Press Service (IPS) – Créer de nouveaux partenariats dans le domaine du savoir pour soutenir le développement rural à l’âge de l’information”, in *Atelier International sur la radio rurale*, www.fao.org.

edo AMARC, besteak beste, baita Gobernu Kanpoko Erakunde asko ere; informazioa gizaki guztien esku egon dadin eta edonork izan dezan bere mezua plazaratzeko aukera.

Bibliografia

- (1999): "ININCO Anuario". Universidad Central de Venezuela.
- (2000): "Mixed Media/Medios Enteros: Broadcasting & the internet in Latin America & the Caribbean", [Azkenengo agiria], Tampa, Florida (AEB), irailak 23 eta 24, www.comunica.org/tampa/-info@comunica.org.
- Aguilera, O. (1999): *Las ideas en el periodismo*, Paraninfo, Madril.
- Amarc (1998): "Carta de Radios Comunitarias y ciudadanas", www.amarc.org.
- , (2000): "MOEBIUS-Planeta Radio. Una radio para todas las radios por Internet", www.amarc.org.
- Basterrretxea, J. I. (2002): *Kultura-aniztasuna eta Gizarte-komunikazioa*, UEU, Bilbo.
- Castells, M. (2001). *La Galaxia Internet*. Areté, Madril.
- Cebrian Herreos, M. (2001). *La radio en la convergencia multimedia*, Gedisa, Bartzelona.
- FAO (2001): "La radio rural: la Internet de África", www.fao.org.
- Girard, B. (1999a): "Mixing Media: La radiodifusión e Internet para el desarrollo y la democracia", *Voices* 3, 3. Bangalore (India). Artikuluaren bertsio elektronikoa, www.comunica.org.
- , (1999b): "Radio rurale et technologies de l'information et de la communication: les défis", *Voices*, 3, 3. Bangalore (India). Artikuluaren bertsio elektronikoa, www.comunica.org.
- , (argitatzaila) (2002): *Radiopasionad@s: Experiencias de radio comunitaria en el mundo*. Edizio digitala, www.comunica.org.
- Gutierrez Paz, A. (1996): "Tokiko irratia, herri-partaidetasunaren guneak", *Uztaro* 18, 41-48.
- , (2000): "Irratia erroka digitalaren aurrean", *Uztaro* 32, 35-47.
- , (2001): *Ekoizpena eta errealizazioa irratiari*, UEU, Bilbo.
- Hilliard, R. L. (2001): "Radio agricole et rurale – Introduction et modèles", *Atelier international sur la radio rurale*, www.fao.org.
- Hughes, S. (2001): "L'UNESCO et les centres communitaires multimédia – Intégrer les technologies modernes et traditionnelles de l'information et de la communication, pour renforcer la communauté", *Atelier international sur la radio rurale*, www.fao.org.
- Ilboudo, J. P. (2001): "Histoire et évolution de la radio rurale en Afrique noire – Rôles et usages", *Atelier international sur la radio rurale*, www.fao.org.
- , (2002): "La radio rurale: outil d'enquête sociale. Techniques de production radiophonique participative et études des auditoires", *Sddimensions: Communication pour le développement*, www.fao.org/sd.
- International Telecommunication Union: www.itu.int/ITU-D/ict/statistics/index.html*.
- InterWorldRadio: "What makes InterWorld Radio different?", www.interworldradio.org.
- Lafit Coulibaly, A.: "Africa: El desarrollo de los medios de comunicación y el desafío de la capacitación", *InteRadio* 9, 1, www.amarc.org/interadio.
- Less Camara, M.: "Africa: Un elefante blanco en camisa de once varas", *InteRadio* 8, 1, www.amarc.org/interadio.
- Lewis, P. M eta Booth, J. (1992); *El Medio Invisible. Radio pública, privada, comercial y comunitaria*, Paidós, Bartzelona.
- López Vidales, N. (2002): *La Tecnología en Radio. Principios básicos, desarrollo y revolución digital* [2. argitalpena], EHU, Bilbo.

- Milosevic, B.: "Audio Online. Cómo crear archivos de audio para la Web",
www.oneworld.net/radio.
- NUA Internet Surveys: www.nua.net/surveys/index.cgi.*
- Ortiz Crespo, G. (2000): "Globalización y medios de comunicación: el impacto de los medios independientes", *Mixed Media/Medios Enteros: Broadcasting & the internet in Latin America & the Caribbean*, Tampa, Florida (EEUU),
www.comunica.org/tampa.
- Plaza, M.: "Pueblos indígenas, radio e Internet: De lo local a lo global en un diálogo intercultural", www.comunica.org.
- Robinson, C. (2001): "Inter Press Service (IPS) – "Créer de nouveaux partenariats dans le domaine du savoir pour soutenir le développement rural à l'âge de l'information", *Atelier sur la radio rurale*, www.fao.org.
- Veras, T.: "Medios Enteros: Radio e Internet en América Latina y el Caribe",
www.teoveras.comdo/n_mediosenterosradiointernet.htm.